

Euskalingua 12

Aurkezpena

Irakurle hori,

Euskalingua 12 honek sei artikulua eskaintzen ditu; eurotarik hiru, Eneko Barrutiarena, Ibon Coterónena eta Mitxel Kaltzakortarena, hain zuzen, jarraipeneoak dira; Gotzon Aurrekoetxea zein Aholab ohiko autoreak dira eta, lehenengoz *Euskalingua* aldizkarian Piarres Charriton.

Eneko Barrutiak *Mundakako arrantzaleei egineko grabazioen transkripzioa (II)* izeneko artikulua aurkezten dau, itsasertzeko herrietako arrantzaleei egindako grabazioen transkripzioarekin hasitako harilari jarraituz, arrantza langintzako lexiko berezituaren barri zehatza aurkitu daiteke eurotan; hasierako xedea lexikoa izan arren, lexikoaz gan, edukietan be aberastasuna darie grabazio honeei.

Gotzon Aurrekoetxeak *Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran* izeneko deskripzio lana dakar, non adin diferenteetako informanteen arteko erkaketa zehatzaren barri emoten dauan; besteak beste, hizkuntzaren aldaketan adina aldagai garrantzitsua eta eraginkorra dala ondorioztatu daiteke.

Ibon Coterónek *Apuntes de filosofía del euskara III* tituludun hiru artikuluko segidaren azken atala eskaintzen dau; lehenengoa *Euskalingua 10*en dago irakurgai, bigarrena *Euskalingua 11*n eta hirugarrena *Euskalingua 12* honetan. §§ 6-7 zatiak garatzen ditu, intonazioa, sintaxia eta semantikaren arteko harreman haratzaren azalpenaren bila. Intonazioaren nondik norakoak, aurrekoek finkatutako zenbait teoria eta gehienetan besterik gabe onartuta dauden ideia, autorearen ustez, faltsuak kritikatzten ditu, § 7 zatian konklusioak eskainiz.

Mitxel Kaltzakortak, galdegaia dala eta, S. Altubek proposatutakoaren kontrako adibideak aurkezten ditu. *Euskalingua 10*en eta *11*n *Galdegaia hasikera perpausetan (I)* eta *(II)* dira irakurgai, hurrenez hurren. *Euskalingua 12*n *Galdegaia testu osoetan (I)* dakar eta hurrengoan honen ondorengo eskaintzeko asmoa dau autoreak. Guztiotan hasierako tesiari eusteko azterketa egiten dau eta horretarako datuak aurkeztu.

Autore barria Euskalinguarako, hizkuntza eta literaturan ezaguna, oso, Piarres Charriton. *Medikuak euskal literaturan* izenburuak argi adierazten dau gaia. Charritonek berak hasieran dinoskunez “Apezek (...) leku izigarria hartu dute euskal literaturan. (...) gure aintzineko literaturari hurbiletik behatzen badiogu (...) legegizon, maisu, kapitain eta oroz gainetik, asko mediku.” Horretariko hamalau aurkezten ditu, XVII. mendetik XX.era. Mendeetan aurrera egin ahala, mediku-idazle kopuruak gora egiten dau eta XIX. mendean jaiotako bederatzik izten dabe zerrenda. XX.ekoak aipatuta daude baina, ikerketa bidea irekita geratzen dela aipatzen dau autoreak, bai hegoaldeko mediku idazleen bilaketa lana egiteko, bai alde bateko zein besteko XX. mendekoena egiteko, alegia.

Aholabek *Hizlaria egiazatzeko euskarazko eta gaztelerazko datu-base elebiduna eraikitzen* izeneko artikulua ekarri dau. Sistema elektronikoko bidezko eragiketetan, norbera aurrean ez dala, norbere burua gero eta zehatzago identifiketako baliabideen aurrerapena da ikerketa hau, bestela esanda, norbanakoaren identifikaziorako pasahitza erabili beharrean identifikazio biometrikoa erabiltzeko pausuz dihardu. Hain zuzen ere, hizkuntza anitzeko inguruetan hitzun elebidunei hizkuntza aukeratzeko modua eskaini ahal izatea du gogoan eta horretarako behar diren ezaugarri biometrikoen datu-basearen diseinua eta osatzea azaltzen dira Aholab ingeniari taldearen artikulua honetan.

Bertoko artikulua gustuko izango dituzulakoan, agurtzen zaitut.

Aulesti, 2008ko apirilak 10

Maribi Unamuno, editorea

victoria.unamuno@ehu.es